# "TXIRRITA'K UTZI GAITU"

Bertsolari gudua irabazi beria zuan gure «Txirita» aipatuak, berari omenaldi bat eskeñi bear zitzaiola bururatu zitzaigunean. Bururatu eta idatzi. Izpaŕingi baten bitartez bota gendun gure asmoa.

Euskal usai duan jai guztietako gertu dagon «Euskaltzaleak» bazkunak artu zuan beretzako gure asmo txiroa eta Epaila'n 22'an egin zion Eŕenderi'ko eŕiaren laguntza osoakin Lujanbio' tar Manuel (G. B.) zanari gorasaŕoa.

Ernaniaŕa izan aŕen benetan maite zuan Eŕenderi'k «Txiŕita» eta arpide orokor edo «suzkrizio» bitartez eskeñi zion bastoi eder bat.

* * *

Ez dio luzaronako balio izan makilak. Oŕila'n 31'an Goizueta'n bertsotan ari zala gaxotu eta Garagaŕila'n 3'an Jaunak Bereganatu zuan.

Goyan bego gizon prestu, zintzo eta bertsolari yayoa.

Agur «Txiŕita» Eŕenderi'k etzaitu aztuko.

K.'tar A

## TXIŔITA-REN OMENEZ



Agur Jaunak
ta Andrea'k
Bertsolari'k agur,
Txiŕita'n omenera
etoŕi gera gaur,
Agur bertsolari'ak
Jaun Andreak agur.

Maitasun lorak bildudítu
Euzkeltzaleak,
Or da an zabaldurik zebiltzan
Maita-zaleak,
Bildurik batera
Maite dan ori eskatzera
Sorta Batean ekaŕi dizka
Bere auŕera.

Auŕean daukagu maitatzen deguna
Egin zayogun bada biotzez omena
Une onetan,
Gogoan izan dezan bere egunetan,
Agur pozez egiña emen Oreretan.

Ernani'n jayo ziñań, bizitu Txiŕitan
Telei Txiki zendun auzoan, bert bertan,
Goyen Zai Buru,
Bertsoŕako zer nolako iru
Txintxuarekin
Zer alaitasun zuek lautakin.

Gazterikan doaia zitzaizun azaldu
Gogo biziaz gero-egiñikan laundu
Bertsuetan
Etxe txiro aberatsetan
Goiz, eguaŕi, aŕatsetan.
Zer nai puntuko erara
Zure bertso etoŕera
Beti dabiltsu aukera.

Ibili zeralako bertsoak kantari
Omena dizugu gaur, Lujanbio jaunak.
Zure egunetan,
Uri aundietan
Berdiñ ibar, balera eŕi txikietan,
Naiz dala baso, mendi, zalai oyanetan
Euzkera ibil dezu pozez bertsuetan.

Bertsolari etzera isturio bikań
Gaya jayotzen zaizu gogo baŕendikan
Eskola gabe
Euzkera lagun artu bertsuetan trebe
Makiñabat lekutan izandu zerade
Maitale bila
Alaituaz zegona ya ila,
Ortarako izandu zerade abila,
Oŕengatik eskeintzen dizugu makila.

Ar zazu Lujanbio, ar zazu Txiŕita,
Ortarako eiñ azi dizugu bisita,
Gure artera
Geiago diñ ere oraindik bazera
Ibiltzen dezulako asaba'n izkera
Bertsuarekin,
Azkotan poztu izan gerade zerekin
Zu ere poztu zaite orain emaitzakin
Euzkeltzale'ek opa dizun makilakin.

LITARGI